

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektuaren garapena egoki gauzatzeko, bezeroak ondo identifikatzeaz gain, **negozio-eredua funtziona dadin ahalbidetuko duten funtsezko elkarlanak** zehaztea ezinbestekoa izango da. BABESBIZIren kasuan, hornitzaile, erakunde eta kolaboratzaileen arteko sare sendo bat eraikitzea da helburua, animalien babesari modu eraginkorrean erantzun ahal izateko.

Alde batetik, **udalak** izango dira gure funtsezko aliatu nagusiak, hauek baitira gure bezero printzipalak eta, ahal den neurrian, bakarrak. BABESBIZIren zerbitzuak **diru publikoaren bidez finantzatzea** da gure helburua, eta horrela, azken erabiltzaileentzat (herritarrak eta animaliak) zerbitzua **doakoa** izatea bermatzea. Udalekin elkarlanean, abandonatutako animalien kudeaketa, arreta eta jarraipena modu koordinatuan egiteko aukera izango dugu.

Hala ere, proiektua aurrera eramateko beste aliantza estrategiko batzuk ere ezinbestekoak direla uste dugu. Besteak beste, tokiko elkarteak, plataformak eta talde sozialak, animalien ongizatearekin, ingurumenarekin, hezkuntzarekin edo gizarte-ekintzarekin lotura dutenak. Elkarte hauen laguntzari esker, baliabideak gehitzeaz gain, BABESBIZIren jarduera herritarren artean gehiago zabaltzeko aukera izango dugu.

Horren harira, honako funtsezko elkarte hauek identifikatzen ditugu:

HERRIA	TALDEA	AZALPENA
Zornotza	Animalien lagunak elkarte 	Abandonatutako txakurrak eta katuak zaintzeko eta adopzio arduratsua sustatzeko sortutako elkarte. Herritarrek boluntario moduan parte hartzen dute, eta BABESBIZIrekin elkarlanean jardun daiteke hezkuntza-kanpainak egiteko.
Durango	Animalien laguntza taldea	Ingurumenarekin eta animalien ongizatearekin lotutako ekintzak sustatzen dituen taldea. Sentsibilizazio-jarduerak eta

		hezkuntza ekintzak antolatzen ditu, herritarren parte-hartzea bultzatuz.
Abadiño	Txakurren ametsa	Tokiko komunitatearekin elkarlanean aritzen den elkarte, maskoten ongizatea eta adopzio arduratsua lantzen ditu. Baliabideak partekatzeko eta boluntariora ekintzak koordinatzeko aliatu aproposa da.
Elorrio	Txatxilipurdi elkarte	Administrazio, ikastetxe eta bestelako eragileekin elkarlanean aritzen den elkarte. Herrigintzan duen esperientzia baliagarria da BABESBIZIren hezkuntza eta sentsibilizazio ekintzak herrian txertatzeko.

Elkarte guzti hauek aliatu estrategiko bezala ikusten ditugu, bakoitzak duenarekin gehiago lortu baitaiteke beti. BABESBIZIren helburua abandonatutako animalien ongizatea bermatzea denez, komunitatearen inplikazioa eta tokiko eragileen laguntza ezinbestekoak izango dira proiektua arrakastaz garatzeko.

Azkenik, bost kideok bazkide izango gara eta bakoitzak izango duen parte hartzea berdina izango da. Nahiz eta jakin bakoitzaren ahalmen ekonomikoa desberdina dela, denok berdina jarriko dugula eta parte hartze berdina izango dugula erabaki dugu, arazo asko ekiditzeko. Hau da, guztiok ehuneko bera izango genuke eta beraz, erabakiak hartzeko ere berdinak izango gara, baita lan egiteko orduan. Jarriko dugun kopuruari dagokionez, bakoitzak 2000€ aurre kapitala jarriko duela erabaki dugu. Ondorioz, guztion ekarpenekin 10.000 € euro izango genituzke kapital sozial gisa.

Enpresa osatzen dugun jardule bakoitzaren rola zein den argi eta garbi aditzera emango dugu hurrengo taula honetan:

MAIALEN LEANIZBARRUTIA

Zerbitzuetaz arduratuko da, hau da, hauek kontrolpean edukiko ditu.




OLATZ UGARTE

Bere ikasketak aurrera eramanez, gure proiektuak dauzkan kostuak eta kontuak eramateaz jardungo da.



OLATZ IRAZABAL

Kanal elektronikoaren arduraduna izano da. Webgunea, sare sozialak (Instagram, Facebook, TikTok), email bidezko buletinak, eta telefono/mezularitza zerbitzuak (WhatsApp, Messenger) kontrolatuko ditu.



LUCIA URREJOLA

Proposatutako jardueratan eta horiek
funtzionarazteko behar diren baliabideak
zehazten lan egingo du.



AIALA DELGADO

Animaliak izugarri maite ditu, txikitatik
albairaria izateko gogoak izan ditu, beraz, gure
proiektuan albaitari bezala lan egingo du.

